

## ● IRABAZI ITURRIAK:

Irabazien iturri bakarria **aplikazioaren erabiltzaileetatik** dator. Hau, hiru modutan burutuko da:

- Artista baten kontratazioa egiterako orduan: Norbaitek artista bat kontratatzen duenean, ordaindutako prezioaren %10 guretzako izango da.
- VIP bezeroekin
- Iragarkiak

Iragarkien eta vip erabiltzaileen bidez mozkinak eskuratuko ditugu.

VIP erabiltzaileei dagokionez, aplikazioarekiko hainbat abantaila izango dituzte: Ez dute iragarkirik izango eta hauek igotako arte-zerbitzuak beste erabiltzaileei pantaila hasieran agertuko zaizkie. Vip kontu hau izateko hilero 5,99€ ordaindu beharko da. Hala ere, zerbitzu berezi hau erabili nahi izatekotan, lehengo 3 hilabeteak dohainik izateko aukera ematen dugu.



Halaber, guk eskaintzen dugun zerbitzuagatik, bezeroek ordaintzen dutenetik komisio bat jasoko dugu. Guk lortuko dugun dirusaria artistek jartzen duten prezioaren araberakoak izango da, artistaren balioaren %10 guk jasoko baitugu.

Urtean zehar, badira denboraldiak irabazi-iturriak altuagoak izango direnak. Udan zehar, esaterako, ikuskizunak sarriagoak baitira eguraldiagatik, oporregatik, turismoagatik... Baina gabonetan ere irabazi iturri nahikotxo izatera hel gaitezkeela uste dugu, denboraldi horretan dagoen giro berezia dela eta.

